

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 132 milioiko doikuntza onartu du gastu arruntetik, inbertsio propioetik eta aurrekontu publikoak finantzatzeko erakundeetatik murriztuz

*Gastuaren murrizketak ez die eragingo Osasun Departamentuari, irakaskuntzari, gizarte-zerbitzuei, menpekotasunari, babestutako etxebizitzari edo Toki Ogasunen Funtzari*

Miércoles, 20 de junio de 2012

Nafarroako Gobernuak 132 milioi euroko aurrekontu-doikuntza egitea erabaki du gaurko bilkuran diru-bilketaren jaitzierari aurre egin eta, hala, BPGaren -1,5eko defizitaren helburua bete ahal izateko. Doikuntza hori Administrazioaren gastu arrunta murriztuz egingo da (% -11,84) eta Nafarroako



Aurrekontuak finantzatzeko erakundeetatik (% -17,76) eta, horri esker, 62 milioi euro aurreztuko dira; bai eta inbertsioak murriztuz ere, Gobernuak zuzenean egindakoak (% -23,68) nahiz diruz lagundutako erakundeek egindakoak (% -19,24) 60 milioi eurotan guztira. Doikuntzako 122 milioi horiei, Ekonomia eta Enpleguaren Dinamizazio Planaren ez-gauzatzeko partzialetik etorritako 10 milioiko kopuru osagarria gehitu behar zaizkio, eta haien berehalako jarduerak [enplegurako politika aktiboak](#) sendotzen oinarrituko dira.

Doikuntza azaltzeko hedabideen aurrean agertu den Barcina Lehendakariak aipatu duenez, Gobernuaren Erabakiak gastu-sorta batzuk kanpoan uzten ditu berariaz: batzuk nahitaez bete beharrekoak direlako edo funtsezkoak Administrazioaren funtzionamendurako, Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpena esaterako; eta beste batzuk Nafarroako Gobernuak oinarritzat jotzen dituelako eta aurrekontu-doikuntza orotatik babestu nahi dituenak. Hala, Gobernuaren Erabakiak jasotzen du [ez diela eragingo ondorengo partidei](#): Osasun Departamentuko aurrekontu-partidei, irakaskuntza publiko eta kontzertatuari dagozkien partidei, Gizarte Zerbitzuen eta Menpekotasun Legendaren Foru Legearen aplikazioari, alokairu eta subsidioei etxebizitzako jarduerengatik, Toki Ogasunen Funtzari, eta Abiadura Handiko Trena finantzatzeko dauden partidei.

Diru-laguntzak jasotako erakundeen artean ere(oro har, gastu

arruntetik % 17,76 eta inbertsiorako laguntzetatik % 19,24 murriztuko zaie), hiru salbuespen daude: Nafarroako Unibertsitate Publikoa (transferentzia arruntan % 5eko murrizketa aplikatuko zaio); Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako Kontseilua (% 12ko murrizketa aplikatuko zaie gastu arrunterako eta % 25 ekoa kapitala transferitzeko); eta sozietate publikoak (% 25 arteko murrizketa izango dute gastu arruntetan nahiz inbertsioetan).

Aurrekontu-doikuntza 2012ko Nafarroaren Aurrekontuan kentzen diren gastuaren 718 milioi euroko esparruan egingo da, jada aipatutako gastuak eta ezinbestekoak edo funtsezkoak diren beste batzuk (Osasuna, Hezkuntza, Mendekotasuna...) kendu ondoren.

### **Doikuntzaren xehatzea**

Doikuntzetatik lehena Aurrekontuaren 2. kapituluan egingo da (Gobernuaren gastu arrunta). % 11,84 ko murrizketa ezartzen da oro har ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuetan, hau da, Administrazioaren ohiko funtzionamenduko gastuetan. Kapitulu horretan ondorengo gastuak sartzen dira: horniketak, informatika, publizitatea, garraioa eta bidaiatzeko gastuak, bai eta laguntza teknikoko lanak ere. Kontzeptu horretan 15 milioi euro aurrezte aurreikusten da.

Era berean, Gobernuak % 17,76 murriztuko du Aurrekontuko 4. kapitulutik (transferentzia arruntak), hau da, Gobernuak egiten dituen transferentziak aurrekontu publikotik finantzatutako erakundeen funtzionamendurako. Kontzeptu horretan 47,3 milioi euro aurreztuko da, guztira.

Doikuntzak Gobernuko inbertsioei eragingo die, eta haien, oro har, % 23,68an murriztuko dira (Aurrekontuaren 6. kapitulua). Inbertsioen kapituluari esker, 25,3 milioi euroko doikuntza egin ahal izango da.

Eta azkenik, Gobernuak doikuntza-politika hori besteentzako inbertsioetara eramango du, Aurrekontuen 7. kapituluan esleituta daudenak (kapitalaren transferentziak). Zehazki eta, oro har, % 19,24ko murrizketa aplikatuko da eta, horri esker, 34,7 milioi euro aurreztuko da.

### **Langileen arloko doikuntzak**

Barcina Lehendakariak azaldu du, halaber, gaur onartutako doikuntzak ez diela eragiten Nafarroako Foru Administrazioako zerbitzuan dauden langileen ordainsariei.

Nolanahi ere, langileen arloan bi neurri hartu dira, eta horrek gastua eustea ekarriko du eta, ziur asko aurrezte ekonomikoa ere, oraindik zenbatu gabe dagoena: sortutako hutsuneen estaldura % 10era mugatzen da; eta funtzio publikoan sartzeko hautaketa-prozesu berriak ez dira deituko (neurri horrek ez dio berriki egin den Erizaintzako oposizioko deialdiari eragingo).

### **Egitura organikoaren murrizketa eta protokolo-gastuetan aurrezte**

Gainera, hedabideen aurreko agerraldian Nafarroako Lehendakariak aurreratu duenez, aginduak eman ditu kontseilari sozialisten esku zeuden hiru departamentuek (laster batean titular berriak proposatuko ditu) beren unitateak berrantola ditzaten egitura murrizteko xedearekin; horren ondorioz kostua aurreztuko da eman behar duten zerbitzuaren kalitateari eta eraginkortasunari eragin gabe.

Honako erabaki honen berri ere eman du: foru-agintari nagusientzat finantzatzen ziren kortesiazko protokolo-gastuak Nafarroako Parlamentutik kentzea, Gobernuko kideenak barne. Nafarroako Gobernuak 50 sarrera erosten zituen San Fermin Feriako zezenketetarako, beste 50 entzierroetarako eta 28 banaketarako, bai eta 18 eserleku ere Osasunak Reyno de Navarran jokatzeko dituen Ligako partidetak, 16 Baluarteko ikuskizunetarako eta beste 6 Gayarre antzokirako. Alor horretan 120.000 euro aurreztuko da.

### **Datuen etengabeko jarraipena**

Gastuaren doikuntza-neurri horiekin, Nafarroako Gobernuak Nafarroako eskualdeko BPGaren % 1,5eko defizitaren helburua betetzera heldu nahi da, gastua 2012an zergen bidezko diru-sarrerak jaitea aurreikusten den kopuru berean txikituz, eskura dauden azken kalkuluen arabera, maiatzari dagozkionak.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak aurreikuspen horiek gutxienez bi hilean behin eguneratuko ditu, diru-sarreraren bilakaerari, gastuen egikaritzeari eta ingurune ekonomiko eta fiskalean izan daitezkeen aldaketei erantzunez, beharrezkoak diren irtenbideak hartu ahal izateko eta defizitaren helburua betetzen dela bermatzen dutenak.